

San Joseren arrastotik

Euskal Herriko gotzainen idazkia

Elizbarrutietako Misioen kanpaina, 2018ko martxoa

San Joseren arrastotik, bere itzalean ospatuko dugu Elizbarrutiko Misioen urteroko kanpaina. San Josek misiorako deia geure egiten irakasten digu. San Josek, bere bihotza Jainkoarekiko hartu-emanerako irekirik duelako, Jainkoaren ahotsa bere barruan entzuteko gauza den pertsona irudikatzen du. Gure kulturaren erasotzen gaituzten irudi-, ahots-, aukera- eta gurari-andanaren parean, San Josek entzutea lantzen irakasten digu, horrela Jainkoaren ahotsa ez isilarazteko eta misiorako deiari baiezkarekin erantzuteko. Lo zegoenean ere, aingeruaren ahotsa entzuteko moduan zen: "Hartu zituen, beraz, Josek haurra eta ama gauez, eta Egiptora alde egin zuen. Han bizi izan zen, Herodes hil arte. Horrela, Jaunak profetaren bidez esana bete zen: «Egiptotik etortzeko dei egin nion neure semeari»" (Mt 2, 14-15; ik. Os 11, 1).

Beste alde batetik, san Josek bokazio misiolariaren funtsezko alderdia agertzeraz ematen digu: aitatasun espirituala. Hain zuzen ere, Josek Jesus semetzat hartu zuenean, Jainkoak ondorengo ugariaren aita izendatu zuen Abrahamen antzeko aitatasuna hartu zuen bere gain. Era berean, misiolariaren aitatasuna ere ez da «haragiaren araberako» aitatasuna, «fede eta Espirituaren araberako» aitatasuna baizik. Misiolari bokazioaren emankortasuna, Mariarena eta Joserena bezalaxe, Espiritu Santuarengandik dator.

Ziur asko, bere ekarpena oso txikia izan zela esango zigukeen san Josek, eta benetan, bera zorionekoa izan zela misioaren erdian Jainkoaren dohaina jasotzeagatik. Eta, egia esan, horrelaxe da: guk eskain dezakeguna baino askoz gehiago jasotzen dugu misiotik. Afrikar Elizaren fedearen freskotasuna, esate baterako, Espiritu Santuaren dohaina da Europako elkarte zaharkitu eta sekularizatuertarako. Europan, okerrean, ez da zahartu izana, sekularizatu izana baizik. Are gehiago, zahartu izanaren arrazoia, sekularizatzea, fedearen freskotasuna galtzea baizik ez izatea.

San Joseri ez gatzazkio misioen zaindari bezala zuzentzen, Xabierko san Frantzisko eta Lisieuxeko santa Teresitaren kasuan egin ohi dugunez, Eliza osoaren (misioak barne, jakina) zaindari

bezala baizik. Ebanjelizazioa garatzeko ahalegina gauzatzean gogoratu eta erregutu egin behar dugun zaindaritza da. Laguntza erregutu diezaiogun san Joseri Leon XIII.aren otoitzarekin: *“Aldendu guregandik, oi aita txit maitekor horrek, akats eta grina txarren zigor hau... Lagun iezaguzu egoki zerutik ilunpetako boterearen aurkako borroka honetan...; eta delako garai batean mehatxupean zen Jesus Haurraren bizia heriotzatik askatu zenuenez, babes ezazu orain Jainkoaren Eliza santua kontrako azpikerietatik eta zoritxar orotatik”*.

Jainkoak san Joseren kargu utzi zuen bere altxorrik preziatu eta handienen, Jesus eta Mariaren, zaintza eta geuk ere, “Zerbait berria ernetzen ari da – Algo nuevo está brotando” izenburuaren haritik ospatuko dugun Elizbarrutietako Misioen 2018ko kanpaina honetan, bere esku utzi nahi ditugu Gasteiz, Bilbao eta Donostiako gure elizbarrutiok eta gure misiolari erronkak.

Aldi berean, ikas dezagun berarengandik, batez ere eta gauza guztien gaintik, zerbitzari izaten. Nolakoa ote zen san Joseren zerbitzua? Nolakoa bere estiloa? Santu honen bizitzaren inguruan nobela eran idatzi izan direnen artean, Jan Dobraczynski izeneko poloniarren “Aitaren itzala” liburua nabarmentzen da. Bertan, bereziki azpimarratzen da san Joseren zerbitzuzko sena, zuhurra, ez-nabarmena: Zerbitzatu eta itzalean geratu! Buru izan, nabarmendu nahirik gabe! Argi izan, harrotasunik gabe!... Norengandik ikasi ote zuen Jesusek San Mateok jasotzen duen *“ez beza jakin zure ezkerak zer egiten duen eskuinak”* (Mt 6, 3), aholku ebanjelikoa? Jesusen aholku ebanjeliko hau, edo beste hainbat, ez ote zen bere haurtzaro, nerabezaro eta gaztaroan San Joserengan ikusitako lekukotasunetik sortu?

San Jose izan dadila gu guztiontzat berebiziko maisua Kristoren salbamen-misioaren aldeko zerbitzuan; Elizan, guztioi eta bakoitzari, bizi egoera guztietan, eta batzuk zein besteak izanik gure karisma eta inguruabarrak, dagokigun zerbitzuan. San Josek lor dezala Eleiza eta munduarentzat, eta baita gutariko bakoitzarentzat ere, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren bedeinkapena.

+ Mario, Bilboko Gotzaina
+ Jose Ignacio, Donostiako Gotzaina
+ Juan Carlos, Gasteizko Gotzaina

A la sombra de San José

Carta de los obispos del País Vasco

Campaña Misiones Diocesanas, marzo 2018

Nuestra campaña anual de Misiones Diocesanas la realizamos a la sombra de San José. La figura de san José nos enseña a acoger la llamada a la misión. José es imagen de la persona capaz de escuchar la voz de Dios en su interior, porque tiene su corazón abierto a la comunicación de Dios. Frente a la invasión de imágenes, voces, expectativas y deseos de toda clase que nos bombardean en nuestra cultura, San José nos enseña a cultivar la escucha, para no acallar la voz de Dios, para acoger la llamada a la misión. Incluso cuando él dormía, estaba en disposición de oír la voz del ángel: "tomó al niño y a su madre y se retiró a Egipto; y estuvo allí hasta la muerte de Herodes, para que se cumpliera el oráculo del Señor por medio del profeta: «De Egipto llamé a mi hijo»" (Mt 2, 14-15; cf. Os 11, 1).

Por otra parte, san José nos descubre una dimensión esencial de la vocación misionera: la paternidad espiritual. En efecto, cuando José tomó a Jesús como hijo suyo, estaba asumiendo una paternidad al estilo de la de Abraham, al que Dios le concedió ser padre de una gran descendencia. Así también la paternidad del misionero no es una paternidad «según la carne», sino «según la fe y el Espíritu». La fecundidad de la vocación misionera, como la de María y la de José, procede del Espíritu Santo.

A buen seguro que san José nos diría que su aportación fue muy pequeña, y que en realidad, él no fue sino un privilegiado para recibir el don de Dios en medio de la misión. Y ciertamente es así: nosotros recibimos de la misión mucho más de lo que podemos aportar. La frescura de la fe de la Iglesia africana, por poner un ejemplo, es un don del Espíritu Santo para las comunidades envejecidas y secularizadas en Europa. Lo peor no es que en Europa hayamos envejecido, sino que nos hayamos secularizado. Es más, el motivo por el que hemos envejecido, no sea otro que el de habernos secularizado, es decir, haber perdido la frescura de la fe.

San José no es invocado como patrono de las misiones, como es el caso de san Francisco Javier y santa Teresita de Lisieux; sino como patrono de la Iglesia en su conjunto (incluyendo las misiones, por supuesto). Se trata de un patrocinio que debemos recordar e invocar para poder llevar adelante el empeño de la evangelización. Invoquemos a san José con la oración del Papa León XIII: *"Aleja de nosotros, oh padre amantísimo, este flagelo de errores y vicios... Asístenos propicio desde el cielo en esta lucha contra el poder de las tinieblas...; y como en otro tiempo libraste de la muerte la vida amenazada del Niño Jesús, así ahora defiende a la santa Iglesia de Dios de las hostiles insidias y de toda adversidad"*.

En esta campaña de Misiones Diocesanas 2018, que tiene como lema "Zerbait berria ernetzen ari da - Algo nuevo está brotando", encomendamos nuestras diócesis de Vitoria, Bilbao y San Sebastián, así como nuestros retos misioneros a la protección de aquel a quien Dios mismo confió la custodia de sus tesoros más preciosos y más grandes: Jesús y María.

Aprendamos al mismo tiempo de él sobre todo y por encima de todo, a servir. ¿Cómo sería el servicio de san José? ¿Cuál sería su estilo? Entre las diversas vidas noveladas sobre nuestro santo, destaca una escrita por un polaco llamado Jan Dobraczynski, cuyo título es "La sombra del padre". En ella se destaca de forma especial el espíritu de servicio discreto de san José: ¡Servir y permanecer en la sombra! ¡Liderar sin afán de protagonismo! ¡Ser luz sin pretender lucirse!... ¿De quién aprendería Jesús ese consejo evangélico que recoge San Mateo: *"que no sepa tu mano izquierda lo que hace tu derecha"* (Mt 6, 3)? ¿No cabe pensar que ese consejo evangélico de Jesús, como tantos otros, pudiera haber nacido del testimonio que había visto en San José a lo largo de toda su infancia, adolescencia y juventud?

Que San José sea para todos nosotros un maestro singular en el servir a la misión salvífica de Cristo; tarea que en la Iglesia nos compete a todos y a cada uno, en todos los estados de vida, y sean cuales sean nuestros carismas y circunstancias. Que san José obtenga para la Iglesia y para el mundo, así como para cada uno de nosotros, la bendición del Padre y del Hijo y del Espíritu Santo.

+ Mario, Obispo de Bilbao
+ Jose Ignacio, Obispo de San Sebastián
+ Juan Carlos, Obispo de Vitoria